

IRAUNKORTASUN PLANA



AURKEZPENA 2026





IRAUNKORTASUN PLANA

AURKEZPENA
2026

Legezko Oharra

Iraunkortasun Plan Global honek ekintza-multzoa du helburu garapen iraunkorrari ekarpena egiteko asmoz. Petronorrek adierazi dutenez, haien lorpenean aurrera egiteko ekimenak bultzatu nahi dituzte. Nolanahi ere, helburu horiek orientagarriak direnez, ez dira emaitzaren arabera betebeharrak, ezta hirugarrenen aurrean arlo juridikoan lotesleak diren konpromisoak ere.

Hori dela eta, Petronorrek helburu horiek oso-osorik edo zati batez berrikusi, egokitu, atzeratu edo, hala badagokio, ezeztatu ahal izango dituzte, inguruabarren arabera beharrezkoa denean. Hala ere, horren ondorioz, ez dute berez inolako lege-erantzukizunik euren gain hartuko hirugarrenen aurrean. Agiri honetan azaltzen den informazioa boluntarioa da, eta ez da egiaztatu.

© PETRONOR, S.A. 2026: Eskubide guztiak gordeta daude. Agiri hau PETRONOR, S.A.ren jabetzakoa da eta oso-osorik edo zati batean erreproduzi daiteke bakarrik merkataritza-helbururik gabe hedatzeko bada.

EDUKIERAK

1 .	Gure jasangarritasun-eredua	4
2 .	Garapen Iraunkorraren helburuak	6
3 .	2026ko Iraunkortasun Plana	8
3.1	Laburpena	8
3.2	Trantsizio energetikoa	9
3.3	Ingurumena	16
3.4	Talentua eta ongizatea	26
3.5	Erkidegoak eta balio-katea	29
3.6	Ardatzak	34
4 .	Plana eguneratzeko prozesua	39

1. Gure JASANGARRITASUN-eredua

Bultzatzen dugun trantsizio energetikoak aurrera egiten duenean, orekan egon behar da pertsonekin, ingurumenarekin eta ekonomiarekin.

Ikuspegi hori jasangarritasunaren oinarriekin eta gure energia anitzeko apustuarekin dago lotuta, eta gure erabakiak bideratzen ditu gero eta eskari energetiko handiagoko ingurune konplexuan.

Horren jakitun, gure **Jasangarritasun Politikak** arlo horretako konpromisoak zein diren eta balio-katearekin nolako lotunea duten azaltzen du, eta, horrez gain, 2050ean berotegi-efektuko gasen inolako isuri garbirik ez sortzeko Repsol Taldeko helburua zehazten du, Pariseko Hitzarmeneko helburuen arabera.

Politika horretatik abiatuta, **jasangarritasunaren ereduak** epe luzerako erreferentzia ezartzen du, gure funtsezko jarduketa-arloak antolatzeko eta lehenesteko. Bere indarraldia ziurtatzeko asmoz, gainera, ereduak bera aldi-aldi aztertzen da, konpainiaren bilakaerarekin eta ingurune aldaketekin bat etorri dadin.

Egitura berrian ez dira sei jarduketa-ardatz egongo, lau baizik:



Ereduak zeharkako ardatz bi ditu osagarri: **etika zein gobernantza eta eragiketa segurua**. Ardatz horiek funtsezkoak dira erabateko jarduketa sendotzeko orduan.

Urtero, gure jarduna gure interes-taldeen aurreikuspenetara hurbiltzeko moduko helburuak zehazten ditugu. Konpromiso horiek, gainera, **jasangarritasun-planetan** gauzatzen dira. Izan ere, jendaurrean jakitera ematen ditugun ekintza-planak dira, eta, geroago, haien aurrerapenak izango ditugu hizpide. **Plan globalean**, konpainiaren jasangarritasunerako helburuak azaltzen dira, eta **tokian tokiko planek** ibilbide-orri hori hedatzen dute herrialde eta industria-gune bakoitzean, geure jarduera garatzen dugun lekuetako inguruabarrak eta premiak kontuan hartuta.



2. GARAPEN IRAUNKORRAREN helburuak

Nazio Batuen **2030erako Agenda** 2015eko irailean onartu zen, eta, bertan, esparru bateratua ezarri zen, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloko dimentsioetako **Garapen Jasangarrirako 17 Helbururen** (GJH) bidez erronka globalei aurre egiteko asmoz. Petronorren, hasiera-hasieratik, babesema eman diogu agenda horri, eta konpromiso hori gure **Jasangarritasun Politikan** agertzen da, jakin badakigulako gure jarduerak garapen jasangarria sustatu dezakeela.

Gaur egungo testuinguruan, aurrerapen desberdinak eta GJHak aurreikusitako epeetan betetzeko zailtasunak daude, erreferentziako txostenetan adierazten den bezala (esate baterako, *Sustainable Development Goals Report 2025*). Hori dela eta, guretzat garrantzizkoa da eragile publiko zein pribatuen koordinaziopeko inplikazioa indartzea eta lankidetzari zein aliantzei eustea.

Gure jardueraren ezaugarriengatik, aztergai izan ditugun zenbait xedetan ekarpenak egiteko gaitasun handiagoa dugula kontuan hartuta, honako hauexek lehenesten ditugu: **7. GJH** (Energia eskuragarria eta ez-kutsatzailea), **8. GJH** (Lan duina eta hazkuntza ekonomikoa) eta **13. GJH** (Klimaren aldeko ekintza). Horren osagarri, honako hauexek helburu dituzten ekimenak ere bultzatzen ditugu: **6. GJH** (Ur garbia eta saneamendua), **9. GJH** (Industria, berrikuntza eta azpiegitura) eta **12. GJH** (Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak), **17. GJH** (Helburuak lortzeko aliantzak) zeharkako ardaztat hartuta.


Aldi berean, **2050ean, Repsol Talde bezala, inolako isuri garbirik ez sortzeko asmoa dugu**, oraindik, eta zenbait lerroren arabera lan egiten dugu, energiaren zein produktuen eskariari aurre egiteko, berrikuntza industrialak bultzatzeko, baliabideak erabiltzean eraginkortasuna hobetzeko eta lantoki ditugun inguruneetan aurrerakada ekonomiko zein soziala suspertzeko.

Urtero-urtero, 2030erako Agendan egiten dugun ekarpenaren xehetasunak azaltzen ditugu **GJHei** buruz argitaratzen dugun **txostenean**. Bertan, hain zuzen ere, ekarpen globalaren eta tokian tokikoaren berri ematen dugu adierazleen zein ekimenen bidez.

Argitaratutako azken txostenean, mugarri nahiz adierazle garrantzitsuak aurkeztu eta lehenetasuna eman diegu eragin handiena sortu dezakegun arloei.



Tokiko testuingurua kontuan hartuta **Plan** honetan zehaztutako **ekintzek 2030eko Agenda** babestea dute xede, honako helburu hauek jorratzean:



3.1 Laburpena



3.2 Trantsizio energetikoa

Jakin badakigu gizartea kezkatuta dagoela klima-aldaketaren ondorioengatik, eta gure jarduketa bat dator **Pariseko Hitzarmeneko** helburuekin. Izan ere, horren arabera, batez besteko tenperatura globalaren gorakada ezin da 2° C-tik gorakoa izan, eta, industriaurreko mailak kontuan hartuta, 1,5° C-ra hurbiltzeko ahalegina egiten jarraitu beharra dago.

Trantsizio energetikoak aurrekaririk gabeko erronka zaila dakarkio gizarte osoari. Testuinguru horretan, Petronorren, **2050ean berotegi-efektuko gasen inolako isuri garbirik ez sortzeko asmoa** zehaztu dugunez, helburu hori sartu dugu geure estrategian nahiz negoziarioi buruzko erabakiak hartzeko prozesuan.

Ibilbide horretan aurrera egiteko, **trilema energetikoari** aurre egin behar diogunez, aurrera egin behar dugu isurien murrizketan, baina, aldi berean, energia-hornikuntza seguru bezain eskuragarriari eutsi behar diogu. Gure ibilbide-orria helburuetan zein jarduketa-arloetan zehazten da, eta haien aurrerakuntza-maila aztertzen dugu aldian-aldian.

Teknologia funtsezko elementu gaitzailea da prozesu horretan. Deskarbonizaziorako dugun estrategia **lehentasunezko bost jarduketa-arlotan** dago egituratuta: eragiketen eraginkortasunaren etengabeko hobekuntza eta portfolioaren kudeaketa, sorkuntza elektriko berriztagarriaren garapena, erregai berriztagarri likido zein gaseosoen sustapena, gure bezeroen premietara egokitutako energia anitzeko irtenbideen eskaintza eta karbono-hustulekuen garapena.

Era berean, trantsizio energetikoaren ondorioz, energia sortzeko eta kontsumitzeko ereduak ere eraldatu behar dira. Esparru horretan, **ekonomia zirkularra** sustatzaile garrantzitsua da baliabideen erabilera hobetzeko, lehengai alternatibo zein berriztagarrien erabilera handitzeko, hondakinak balioztatzeko eta, horrela, isurien murrizketarako helburuak bultzatzeko orduan.





TRANSIZIO ENERGETIKOA



EKINTZA

Gasolioen ekoizpenerako prozesuak deskarbonizatzea prozesuko isuriak murrizteko.



AZALPENA

Unitateetako eraginkortasun energetikoa hobetuko dugu. Horretarako, korranteetan eskuragarri dagoen beroa erabiliko dugu lurruna sortzeko, eta galdaretako gasaren kontsumoa aurreztuko dugu. Hori dela eta, berotegi-efektuko gas gutxiago isuriko ditugu.



ADIERAZLEAK

Urteko 2.700 tona CO₂-ren isuria murriztea.



GIHEKIKO EKARPENAK





TRANTSIZIO ENERGETIKOA



EKINTZA

Petrokimikarako polimero-mailako propilenoa ekoizteko prozesua elektrifikatzea karbono-aztarna gutxitzeko.



AZALPENA

Industria-guneko karbono-aztarna murriztu eta produktu berria (polimero-mailako propilenoa) eskainiko dugu, elektrifikazioaren ondorioz industria-guneko lurren ekoizpena murrizten delako. Horrela, CO₂ isurien murrizketa bultzatuko dugu konpainian.




ADIERAZLEAK

2026an, elektrifikatzeko prozesu berria abian jartzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





TRANSIZIO ENERGETIKOA



EKINTZA

Huba deskarbonizatzeko proiektuek ingurumenean daukaten eraginak ebaluatzea.



AZALPENA

Deskarbonizaziorako proiektuak jasangarritasunaren, sendotasun teknikoaren eta ingurumen-erantzukizunaren irizpidepean garatzen direla ziurtatzeko, haien ebaluazio integrala egingo da, eta, horretarako READS (*Repsol Environmental Assessment for Decarbonization Solutions*) teknologia ezarriko da Hubean bertan.



ADIERAZLEAK

Mineralizaziorako lantegian, READS metodologiaren arabera ebaluazio integrala egitea.



GIHEKIKO EKARPENAK





TRANTSIZIO ENERGETIKOA



Ekintza

4G eta 5G teknologian oinarritutako digitalizazio-proiektu aurreratuak garatzea.



Azalpena

Findegian 5G teknologia hedatu ostean eta 2025ean lehenengo proba funtzionalak egin ostean, teknologia horretan oinarritutako bi proiektu aurreratu jarriko ditugu abian, eta honako faktore hauek izango dituzte helburu: segurtasuna, fidagarritasuna eta eraginkortasuna.



Adierazleak

Andelen gunean kamera termografikoak hedatzea, haien konposizioa behatzeko.



GIHEKIKO EKARPENAK





TRANTSIZIO ENERGETIKOA



EKINTZA

Hidrolindegia eta hidrogeno berriztagarriko lantegi logistikoa eraikitzea.



AZALPENA

Hidrolindegia jarriko dugu abian, ibilgailu arinen mugikortasunerako eta bidaiarien garraiorako kalitateko hidrogeno berriztagarria hornitzeko. Era berean, hidrogeno berriztagarria zisterna berezietatik (MEGC) banatzeko lantegi logistikoa ere jarriko dugu abian, energia deskarbonizatu hori azken bezeroei hornitu ahal izateko.



ADIERAZLEAK

Instalazio osoa abian jartzea, ibilgailuei hidrogeno berriztagarria lehen aldiz hornitzeko eta hidrogeno berriztagarriaren zisternetatik (MEGC) lehen karga egiteko.



GIHEKIKO EKARPENAK





TRANTSIZIO ENERGETIKOA



EKINTZA

Erregai berriztagarrien erabilera sustatzea Petronorren babesa daukaten ekitaldietako garraio-zerbitzuetan.



AZALPENA

Erregai berriztagarrien (biodiesela) erabilera sustatuko dugu, Petronorren babesa edo laguntza jasotzen duten ekitaldietan eta, batez ere, ikus-entzule gazteak garraiatu behar diren ekitaldietan.



ADIERAZLEAK

3 arrakasta-kasu lortzea 2026an.



GIHEKIKO EKARPENAK



3.3 Ingurumena

Gizarteari bere premiak eraginkortasunez estaltzeko moduko energia eta produktuak hornitzea dugu helburu, ingurumenaren babes egokia bermatzeko eta baliabideak jasangarritasunez erabiltzeko, etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jarri gabe, konpainiako **Ingurumen Politikan** adierazten den bezala.

Horretarako, behar besteko ekintzei ematen diegu lehentasuna, geure jardueretan, balio-katean, lan egiten dugun lekuetan eta gizarteari eskaintzen dizkiogun produktu zein zerbitzuetan, **ingurumenean ditugun eraginak, menpetasunak, arriskuak eta aukerak antzemateko, ebaluatzeko eta kudeatzeko** asmoz.

Airearen kalitatea, ura eta lurzorua babestea funtsezkoa da giza osasunerako eta ingurunearen babeserako. Hori dela eta, bete-betean lan egiten dugu, gure eragiketen ondorioz sortutako isuri kutsagarriak prebenitzeko eta kontrolatzeko eta ingurumenean izan dezaketen eragina murrizteko.

Ura kudeatzen dugu, geure produktu eta eragiketen bizi-zikloan eskuragarri dauden ur-baliabideak babesteko, ingurumeneko ur gezaren atzipena gutxitzeko, iturri alternatiboen erabilera zein berrerabilera sustatzeko eta isuriek uretako ekosistemetan daukaten eragina murrizteko.

Behar besteko ekintzak bultzatzen ditugu, **biodibertsitatea zein ekosistemak** babesteko eta zaintzeko eta haien gaineko eta gure eragiketen, produktuen zein zerbitzuen bizi-zikloaren eraginpean egon daitezkeen erkidegoen nahiz interes-taldeen gaineko eraginak eta menpetasunak kudeatzeko.





INGURUMENA



EKINTZA

Bulego nagusien eraikin berrirako Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiriaren lorpena bultzatzea.



AZALPENA

Bulego nagusien eraikineko obrak amaituko ditugu, azpiegituraren eraginkortasun energetikoa hobetzeko jarduketan bidez. Hobekuntza horiei esker, eraikinaren Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortuko dugu.



ADIERAZLEAK

Kontsumo energetikoa %34 murriztea, jatorrizko egoerari dagokionez.



GIHEKIKO EKARPENAK





INGURUMENA



EKINTZA

Erregaietan bio produktuak sartzea.



AZALPENA

Erregaien karbono-aztarna murriztuko dugu, eta, horretarako, H₂ berriztagarria, bio jatorriko lehengaiak eta hondakinak prozesatu eta erabiliko ditugu desulfurizaziorako unitateetan BioGasolina, BioGasolia, SAF/bioJeta (hegazkinetarako erregaia) eta BioPropanoa ekoizteko orduan.



ADIERAZLEAK

Guztira %4ko e/e Bioa sartzea erregaietan.



GIHEKIKO EKARPENAK





INGURUMENA



EKINTZA

Uraren kontsumoa eraginkortasunez kudeatzea.



AZALPENA

Administrazio publikoekin eta erreferentziako beste erakunde batzuekin garatzen dugun lankidetzaren aktiboan oinarritutako ur-estrategia garatuko dugu, lankidetzarako ereduak bultzatzeko eta, horrela, baliabidearen erabilera hobetzeko eta ur gezaren kontsumoa apurka-apurka murrizteko.




ADIERAZLEAK

Galindoko herriarekin sinatutako isilpekotasun-hitzarmena, uraren ustiapenerako aukerekin lotutako informazio teknikoa trukatzeko.



GIHEKIKO EKARPENAK





INGURUMENA



EKINTZA

Leheneratutako uraren emariak maximizatzea.



AZALPENA

Erreferentziako hornitzaile teknologikoarekin behar besteko irtenbide teknikoak aztertuko ditugu, geure eragiketetan hondakin-uren araztegietako (HUA) urak sartzeko eta, horrela, leheneratutako ur moduan erabiltzeko.



ADIERAZLEAK

Analisia egitea.



GIHEKIKO EKARPENAK





INGURUMENA



EKINTZA

Leheneratutako ura sortzeko gaur egungo gaitasuna eta azpiegitura hobetzea.



AZALPENA

Iragazketa zeramikoko teknologia erabiltzea, solidoak, kutsatzaileak eta efluentearen aldagarritasuna ezabatzeko orduan sendotasunaren zein fidagarritasunaren maila handiagoak lortu daitezzen eta tratatutako ura kalitate handiagoko baliabide industriala izan dadin.



ADIERAZLEAK

Geure hondakin-uren tratamendutegiko tertziarioan iragazki zeramiko berria jartzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





INGURUMENA



EKINTZA

Ekoagregakinak ekoizteko lantegi industrialak eraikitzea.



AZALPENA

Karbono dioxidoaren (CO₂) finkapenerako instalazioak eraikitzeke eta abian jartzeko prozesua amaituko dugu, ekoagregakinak ekoizten hasteko. Proiektu horrek zuzenean lagunduko digu hondakinen isuria murrizten CO₂ atzitzen eta mineralizatzen eta agregakin naturalak ordezkatzeko. Horrela, ekonomia zirkularra eta eraikuntzaren sektorearen deskarbonizazioa sustatuko ditugu.



ADIERAZLEAK

Prozesuaren lehenengo lerroa abian jartzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





INGURUMENA



EKINTZA

Erregai sintetikoaren lantegia garatzea.



AZALPENA

2024. eta 2025. urteetan proiektua zehaztu ondoren, erregai sintetikoak eta hidrogeno berriztagarria ekoizteko lantegiaren eraikuntza amaituko dugu, eta hubeko unitateak alde zuzenetik egiaztatzen, egiaztatzen eta abian jartzen hasiko gara.



ADIERAZLEAK

Erregai sintetikoaren, hidrogeno berriztagarriaren eta sistema osagarrien lantegia egiaztatzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





INGURUMENA



EKINTZA

Petronorreko ingurunekeo ingurumenaren garapen jasangarria sustatzea.



AZALPENA

Petronorrek 60 hektarea inguruko lursailak ditu findegitik hurbil, eta ingurumen-balio handia dute. Eusko Jaurlaritzaren, Bizkaiko Aldundiaren eta Muskizko Udalaren laguntzaz, plan zuzentzailea zehaztuko dugu, lurralde honen garapen jasangarriaren ikuspegitik era bateko zein besteko erabilerak antolatu ahal izateko.



ADIERAZLEAK

Itsaslur Petronorreko Plan Zuzentzailea zehaztea.



GIHEKIKO EKARPENAK





INGURUMENA



EKINTZA

Inguruko boluntarioekin eta ikasleekin suteak suntsitutako baso-saila berritzea.



AZALPENA

Basoko suteak erretako lursaila baso atlantikoko tokiko espezieen bidez berritzeko urteko plana betearaziko dugu, biodibertsitatearen galerari aurre egiteko. Jarduera honako hauexen koordinaziopean garatuko da: Bizkaiko Ingurune Naturala Kudeatzeko Saila, Muskizko Udala eta "El Cerro" izeneko borondatezko lanerako gizarte-erakundea.



ADIERAZLEAK

Boluntario eta ikasle parte-hartzaileak: >600.



GIHEKIKO EKARPENAK



3.4 Talentua eta ongizatea

Petronorren, uste dugu konpainia osatzen duten pertsonak funtsezko faktorea direla negozio-eredua garatzeko eta helburu korporatiboen aurrerakada sustatzeko orduan.

Geure politika korporatiboen bidez, bete-betean lan egiten dugu, **langileen garapen profesionala zein ongizatea** pertsonen kudeaketan kontuan hartzeko eta lan egiten dugun herrialdeetako lege-esparruak zein berezitasunak errespetatzeko.

Pertsonen inguruan daukagun ikuspegia zehazteko orduan, honako hauxe hartzen dugu kontuan: konpainiaren eraldaketa inspiratzeko eta suspertzeko gai diren **liderrak bultzatzea; aurrerakuntza zein garapen profesionala** bilatzea lan-egikera berrien eta enplegarritasuna indartzen duten reskillingeko nahiz upskillingeko planen bitartez; **ongizate integrala eta bidezko tratu inklusiboa** sustatzea, begirada nahiz indar desberdinak integratzeko eta errespetuan, berdintasunean zein alborapenen murrizketan oinarritutako ingurunean berrikuntza sustatzeko; eta **langileen gogobetetasuna** bultzatzea, bizitza eta lana bateragarri egiteko eta **lankidetzaren zein konpromisoa** eraginkortasunaren eta emankortasunaren ardatz moduan bultzatzeko.





TALENTUA ETA ONGIZATEA



EKINTZA

Tabakoa erretzeari uztea.



AZALPENA

Erretzaileen kopurua murriztea izango dugu helburu, tabakoaren kontsumoak eragin larria duelako norberaren osasunean zein osasun kolektiboan. Horretarako, ikuspegi integrala ezarriko dugu, banakako kontsultak (hasierakoak nahiz jarraipenerakoak) laguntza farmakologikoarekin bateratzeko, betiere, beharrezkoa bada, eta tabakoa ixtean sortzen den antsietatea kudeatzen laguntzeko.



ADIERAZLEAK

Erretzaileen gaur egungo kopurua %10 gutxitzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





TALENTUA ETA ONGIZATEA



EKINTZA

Bularreko minbizia prebenitzea.



AZALPENA

Emakume gazteen bularreko minbiziaren arrisku estatistikoa aztertu nahi dugunez, National Cancer Instituteko inkesta egingo dugu, eta, emaitzen arabera, prebentziorako programa aurreratzea iradokiko dugu, gaur egungo programak biztanle-talde horretara iristen ez direlako.



ADIERAZLEAK

Azterketaren arabera arrisku handia duten emakumeen %25ek baheketa-prozesua aurreratzea lortzea.



GIHEKIKO EKARPENAK



3.5 Erkidegoak eta balio-katea

Guztiok aurrera egin dezagun, energiaren aukerak arakatu ahal izateko, ezinbestekoa da erkidegoekin eta balio-katearekin lan egitea. Bertan, gainera, **behar den moduko arduraz** hartzen ditugu erabakiak, eta jakintza, gaitasunak zein eragina batzeko aukera eskaintzen digute aliantzek.

Ikuspegi estrategiko hori funtsezko zutabea da balioaren sorrera, tokian tokiko aukerak eta **gure interes-taldeenganako konfiantza** sustatzeko orduan. Esparru horretan, Petronorren, ingurumenaren, gizartearen zein gobernantzaren arloko irizpideak hartzen ditugu kontuan, eta modu sistematikoan ezartzen ditugu eragiketareduaren berezko osagai moduan honako hauexekin dauzkagun harremanetan: **tokian tokiko erkidegoak, hornitzaileak, kontratistak eta bazkide estrategikoak.**

Repsol Taldean, **giza eskubideak errespetatzen** ditugu proiektuen bizi-ziklo osoan, eta, horretarako, behar den moduko prozesuak jartzen ditugu abian, testuinguru soziala aztertzeke, eraginak lehenesteko eta eragiketetan nahiz balio-katean murrizketa-neurriak ezartzeko. Horrez gain, gero eta zorrotzagoa den ingurune sozialean, konpainiak harreman sendoak indartzen ditu gure interes-taldeekin, tokian tokiko erkidegoekin, batez ere. Horretarako, honako printzipio hauek daukagu oinarri, konfiantza eta balio partekatua sortzeko orduan: errespetua, osotasuna, sentsibilitate kulturala, fede ona eta ez-bereizkeria.

Hornitzaile eta bazkideekiko harremana lankidetzaz-ikuspegiaren bidez egituratzen dugu. Ebaluaziorako mekanismoak ez ezik, elkarrizketa, prestakuntza eta etengabeko laguntasuna ere baditugu xede, hobekuntza sustatzeko, gaitasunak indartzeko eta, estandar sendoen bitartez, konpainiak agerpena daukan ingurune guztietan aurrera egiteko.





ERKIDEGOAK ETA BALIO-KATEA



EKINTZA

Etengabeko prozesurako lantegiko operadoreentzako (OPPC) prestakuntza-programa abian jartzea.



AZALPENA

STEAMeko (Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza, Arteak eta Matematikak) goi-mailako lanbide-heziketako profila dutenen prestakuntza eta enplegarritasuna sustatuko ditugu, eta, horretarako, Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak (Lanbide) abalaturako prestakuntza-programa garatzen dugu, prestakuntza osatzeko.



ADIERAZLEAK

Zehaztutako prestakuntza-programa zabaltzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





ERKIDEGOAK ETA BALIO-KATEA



EKINTZA

Herrizaingoaren, larrialdien, ingurumenaren eta osasun publikoaren arloetan, instituzio publikoekin lan egitea.



AZALPENA

Bete-betean parte hartuko dugu instituzioen arteko lan-mahaietan, konpainiaren zein administrazio publikoen arteko koordinazioa hobetzeko, eta Eusko Jaurlaritzako administrazioek bultzatutako prestakuntza-saioetan ere lagunduko dugu.



ADIERAZLEAK

Bi ekimenetan eraginkortasunez parte hartzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





ERKIDEGOAK ETA BALIO-KATEA



EKINTZA

Larrialdien, ingurumenaren eta osasun publikoaren arloetako prestakuntza ematea eta zabaltzea.



AZALPENA

Eusko Jaurlaritzako administrazioek bultzatutako prestakuntza-saioetan lagunduko dugu, eta, hizlari moduan, azpiegitura kritikoen berariazko premiei buruzko jakintza tekniko eta eragilea eskainiko dugunez, elkarren arteko ulerkuntza sendotuko dugu, eta modu integratu zein eraginkorragoan kudeatuko ditugu arriskuak.



ADIERAZLEAK

Ekimenean parte hartzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





ERKIDEGOAK ETA BALIO-KATEA



EKINTZA

Petronorreko enpresa hornitzaileak ESGren arloan prestatzea.



AZALPENA

Eusko Jaurlaritzak "Basque ESG" Proiektua sartu du bere Plan Industrialean, lurraldeko ETEak arlo horretan prestatzeko asmoz. Horretarako, lurraldeko enpresa sustatzaileei eskatu die laguntzeko. Petronorren, bete-beteen parte hartuko dugu proiektu horretan.



ADIERAZLEAK

Petronorreko 5 enpresa hornitzailek Eusko Jaurlaritzako "Basque ESG" Proiektu Eredugarrian parte hartzea lortzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





ARDATZAK: ETIKA ETA GOBERNANTZA



EKINTZA

Erakundeko kudeatzaileen taldea ingurumenaren, gizartearen eta gobernantzaren arloan (ESG) prestatzea eta sentsibilizatzea.



AZALPENA

2025ean, arrakastaz egin dugu prestakuntza hori zuzendaritzako taldearentzat eta erosketa-prozesuan inplikaturako langileentzat. Beraz, 2026. urte honetan, arlo horretan inplikazio zuzenagoa duten kudeatzaileen taldera zabalduko dugu.



ADIERAZLEAK

Prestakuntza-ekintza gauzatzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





ARDATZAK: ETIKA ETA GOBERNANTZA



EKINTZA

Elkarlaneko harremanak sustatzea Bizkaiko zerga-arloko administrazioekin eta ingurune finantzarioarekin.



AZALPENA

Gure sozietateetako proiektuak aurkeztuko dizkiegu zerga-arloko administrazioari eta finantzatzaileei, eta bisitaldiak egingo ditugu instalazioetara, abian dauden proiektu guztien berri emateko. Aldi berean, gure lurraldean zerga zein finantza arloan egiten diren foroetan parte hartuko dugu.



ADIERAZLEAK

Aurrez aurreko 2 bilera egitea, instalazioetara 4 bisitaldi egitea eta 2 forotan bete-betean parte hartzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





ARDATZAK: ETIKA ETA GOBERNANTZA



EKINTZA

Jasangarritasun Hubarekin lan egitea, Bizkaiko enpresetan ingurumenaren, gizartearen eta gobernantzaren arloko (ESG) kultura sustatzen duten ekintzak garatzeko.



AZALPENA

Bizkaiko Merkataritza Ganberak BBK Fundazioaren eta Petronorren laguntzaz sustatutako Jasangarritasun Hubarekin lan egingo dugu, Bizkaiko enpresetan eta, batez ere, ETE-etan ESGren printzipioak zein kontzeptuak eta Europar Batasunak arlo horretan daukan araudia zabaltzeko, sentsibilizatzeko eta prestatzeko.



ADIERAZLEAK

Hubaren 2026ko Lan Plana garatzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





ARDATZAK: ETIKA ETA GOBERNANTZA



EKINTZA

Petronorrek ingurunean daukan eragin sozialaren neurketa kudeatzeko plataforma garatzea.



AZALPENA

2025ean ingurunean daukagun eragin soziala aztertu ondoren, 2026an behar besteko plataforma garatuko dugu, geure inguruneko hiru udalerrietan kulturaren, kirolaren eta gizartearen arloan babeserako nahiz mezenasgorako abian jartzen ditugun ekintzen eraginaren jarraipena egiteko.



ADIERAZLEAK

Plataforma garatzea.



GIHEKIKO EKARPENAK





ARDATZAK: ERAGIKETA SEGURUA



EKINTZA

Segurtasunaren arloko elkarlaneko ingurunea sendotzea instituzio publikoekin.



AZALPENA

Larrialdietarako simulakroa egingo dugu babes zibilaren zein segurtasunaren arloan eskudunak diren instituzio publiko nagusien laguntzaz eta partaidetzaz; esate baterako, Bizkaiko Suhiltzaileak, SOS Deiak eta Ertzaintza, besteak beste. Horrela, koordinazio eragilea indartu eta jarduketa bateraturako protokoloak egiaztatuko ditugu.



ADIERAZLEAK

Simulakroa egitea eta, bertan, erakunde publikoek parte hartzea.



GIHEKIKO EKARPENAK



4. PLANA EGUNERATZEKO prozesua

Iraunkortasun Plana dokumentu dinamikoa da

Urtero, plan hau osatzen duten ekintzen lorpen-mailaren berri emango dugu, eta, horretarako, **amaierako txostena** argitaratuko dugu.

Bestetik, gure alderdi interesdunentzat kezkarriak diren gaiak edo aurreikuspenak aldagarriak direnez eta urtean jazotako gertaeren bilakaerarekin lotuta daudenez, plan hau **urtero** eguneratuko da ekintza berrien bidez, edo, bestela, indarrean daudenak zehaztuko dira berriro, egoera berrira egokitu ahal izateko.

Plana eguneratu ahala, bete diren ekintzen aztarna geratuko da haien atzean, eta, denak batera, gure konpainiak garapen jasangarrira egindako ekarpena izango dira.





